

# Eibarko

# Kanta Zaharrak

---

## GABON-ABESTIA

Aita Donostiaren artxibotik, orain hiru urte, Aita Jorge Riezu-koak bertan ziren Eibarko kanta zahar gutxi batzuk eman zizkidan. Batzuk don Poli Larrañagak eta Juanito Gisasolak bialduak ziren, eta besteak, itxura danez, Aita Donostia ber-berak jasoak. Honetako bat, **Eibartarren «Gabon-abestia»** izenekoa. Artxiboko fitxaren ezaugarrian, Ref. CM: 27 daroa.

«Gabon-abestia» delako honek, bere parte batzuetan, Otxandion Azkuek jaso zuen «Ator, ator mutil etxera»ren antz haundia dauka.

Bere euskeran, Bizkaiko eta Gipuzkoako formak nahasturik aurkitzen da, Eibarko kanta askotan gertatzen dan bezala. Eta, hemen agertuko dugu, inoiz Gabonak heltzean kantatu nahi lukeen eibartarrentzat.

**Arzak, arzak mutill pitxer erdi arda  
guazen polliki polliki etxera  
Gabon gaba zelebratzera (igarotera)  
aitaren da amaren onduan  
ikusiko dek ama barrez da  
aita ere bai txit kontentuz.  
Baita nik ere zelango tragua (txurruta)  
lelengo esan da Jesus...  
lelengo esan da Jesus...  
Bixigu erriaren azurra ondo txupatuko (garbituko) dogu.  
Eragixok mutill, eragixok mutill  
aurreko danbolin orri  
gaztañak erre artian  
gaztañak erre artian  
tirrin-tarran, tirrin-tarran  
plin, plaun, plust!  
Pasau (euki) deigun Gabon gaba kontentuz...  
pasau deigun Gabon gaba kontentuz.**

JUAN SAN MARTIN